

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresak bilatzen dituen funtsezko baliabideak, baliabide fisiko, baliabide intelektualak, giza baliabideak eta finantza baliabideak dira.

- Baliabide fisikoak: lanerako lekua, gure kasuan garaje bat erabiliko dugu, ordenagailuak eta lanerako telefonoa.
- Baliabide intelektuala: Eneko E eta Seanen harreman publikoetarako trebetasunak, Eneko Z eta Ametsen informatikarako eta webgune diseinuko ezagutza eta Inayaren kontabilitaterako trebetasunak.
- Giza baliabideak: Sexologo eta psikologoak beharko ditugu gazteetan oinarritzen direnak eta hauen laguntza beharrezkoa da guretzat gure jakintzak nahiko murriztuak baitira.
- Finantza baliabideak: Gure aurrezkiak, erakunde publikoaren diru laguntzak eta banku etikoan jardunda lor ditzakegun laguntzak. Finantzazioa emango digutela uste dugu azken finean gure gazteen hezkuntzan oso garrantzitsua den gai bati buruzko zerbitzua emango dugulako, eta espero dugu beraiek kontuan hartzea hori.